BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4874

EBAZPENA, 2011ko irailaren 12koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Robotiker fundazioari aitortutako enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa baliogabetzen duena.

Ikusi dugu Robotiker fundazioari buruzko espedientea, enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioari dagokiona.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2005eko azaroaren 16ko Ebazpenaren bidez, Robotiker fundazioa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko laguntza teknikoa ematekoa homologatu zen. Homologazio hori ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren bidez arautu zen.

Bigarrena.– 2011ko apirilaren 13an, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioko Erregistroaren egiaztagiri bat aurkeztu zen, non Robotiker fundazioa Tecnalia Research & Innovation fundazioak xurgatu zuela jasotzen den.

Hirugarrena.– Hortaz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2011ko uztailaren 12ko Ebazpenak Robotiker Fundazioari aitortutako enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa baliogabetzeko espedienteari ekin zion. Ebazpen honek interesdunari 15 egun balioduneko epea eman zion alegazioak aurkezteko.

Laugarrena.– 2011ko uztailaren 12ko Ebazpena Fundazio interesdunari 2011ko uztailaren 18an notifikatu zitzaion eta ez du inolako arrazoibiderik azaldu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren 11. artikuluan ezartzen denez, aholkularitza enpresa homologatuek homologazioaren oinarrizko baldintza edo betebeharretako bat betetzen ez badute, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak homologazio hori baliogabetu ahal izango du, ebazpen bitartez eta dagokion entitateari entzun ondoren.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Robotiker fundazioari aitortutako enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa baliogabetzea, aipatu fundazioa desegin delako, Tecnalia Research & Innovation fundazioarekin bat egitearen ondorioz.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioetarako, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa betez.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Beraz, ebazpenaren aurka interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 12a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.